

MKM aretoa
Artista gazteentzako
erakusleho berria
Donostian

▣ *Ezpalak*
▣ *Argitalpenak*

▣ *Denbora-pasak*
▣ *Makina bat kontu*

Ihesi
Gipuzkoako
kostaldea
airetik

ARGIA

erdiko kaiera

kultura eta aisia

Plazak tamainan, umorea gainezka

Imuntzo eta Beloki



Imuntzo eta Beloki trikiti bikoteak (Azkoitia, 1969/ Zaldibia, 1956) *Gauaren helduan* CDa kaleratu berri du Elkarren eskutik. Seigarren diskoa osatu dute azken honekin. Hamabost urte joan dira elkarrekin hasi zirenetik. Etxekoengandik musikaren eta bertsoaren sena jaso zuten arren, euren seniderik ez da plazan ari izan iraganean. Imuntzo eta Beloki bikotea bai ordea, gustura ari dira plazaz plaza, tamainan betiere. Aldian dantza askatuan aldian lotuan, eta beti umore onean.

2007ko apirilaren 8a

MIKEL ASURMENDI
Argazkiak: Dani Blanco

ARGIA
33

«Trikitilariak izaten jubilatuta nahi dugu»

IMUNTZO ETA BELOKI bikoteak trikiti klasikoaren bidean segitzen du plazaz plaza. Azpeitiko San Jose jaialdian jo dute udaberriaren atarian, Ugaon eta Azkainen berriki. Hasia da denboraldia beraientzat: saio motza bada bikote gisa, bestela taldearekin. Ohiko musikariekin ari dira. Maider Ansa kantaria da azken diskoan lagun berria: "Eskaerak badira, berarekin ere plazan aritzeko prest gaude" dioskute. Disko berri honen letra gehienak Belokik idatziak dira, Andolin Eguzkitzaren eta Amets Arzallusen letra bana ere badira. Doinuen moldaketak berriz, Imuntzoren eskutik datoz.

Elkarrizketa gauza serioa da. Zuekin serio aritzerik ba al dago ordea? Alegia, ba al dago jendea alaitzea eta jende serioa izatea?

BELOKI. Aizak, gu jende serioa gaituk... Seigarren diskoa egin diagu eta horretarako lan egin beharra zego. Beraz, bazego serio eta alaia izatea ere.

IMUNTZO. Alaitasun eta umore puntu batekin, serio beti ezin duk-eta bizi.

BELOKI. Herri musikan denetariko doinuak zeudek. Esaterako, erromantzeak ere izan dituk Euskal Herrian eta horiek ere lantzen ditiagu. Gure erreperitorioa nahikoa zabala duk, denetarik zegok pixka bat.

Orain serio demonio beraz. Trikiti klasikoaren bidea jorratu duzue. Bide horretan aritutako bikoteak gutxituz joan ote diren inpresioa daukat. Zuek plazaz plaza segitzen duzue ordea.

IMUNTZO. Guk normalean asko ez diagu jotzen, ez gaituk erretzera ailegatzen. Entsegu asko ere ez diagu egiten, saioak ere tamainan. Jotzen diagu baina asko ez, gutxi ere ez. Maiatzetik urrira bitarte jo, eta negu aldean diskoak eta beste gauza batzuk prestatzeko denbora hartzen diagu.

BELOKI. Bai, guk erritmo horri eutsi zioagu. Baina lehenengoko trikitilariak ez dituk desagertu: Laja, Epelde, Iturbide... ari dituk oraindik. Hauek ez ditek guk bezala gaez jotzen, baina familia eta lagunuen ospakizuntan segitzen ditek poliki. Erromeriak ez dituk trikitiaren alor bakarra.

Moderno modaz pasa ohi da, trikiti klasikoak jarraitzen laguntzen du nolabait.

IMUNTZO. Bai, hainbatek modak eskatzen zuena jorratu zutelako modaz pasa zituanez. Guk ez diagu modako erreperitorioa inoiz landu, erreperitorio klasikotik abiatu gaituk eta modak ekarri dituen bertsiok eta estiloak sartu ditiagu. Puntan ere ez gaituk ibili inoiz.

BELOKI. Bai, beno... baina bikote eta talde bakoitzaren historian hamaika arrazoi zeudek desegiteko. Bakoitzak bere bidea egiten dik, berau agortzen dik eta beste bide edo alor batean abiatzen duk. Guk gure esperentziaz zekiagu, udan gehitxo jotzen badiagu, saioak



Beloki

Musika zabaltzailea Elkarren

Diskogintzak behera egin du, baina batik bat nazioarteko musikak edo internazionalak egin du behera. Internetetik nahi adina musika dago eta jendeak izugarri pila jaisten du. Euskal musika jaisten da baina ez horrenbeste. Jen-

deak badu euskal musikarekiko oraindik bihotz koxkor bat eta nik eskatuko nuke jarrai dezagun bihotz koxkor hori izaten, bestela, minimo bat ez badugu saltzen ezin dugu grabatu, defizitario izango gara diskoetxearentzat.

elkarren segidan egiten baditiagu nekatzen gaituk. Horrek ere eragiten dik, elkarbizitza ere garrantzizkoa duk, ez bakarrik musikan jardutea. Jarduna lana bihurtzen den heinean, nekea zetorrek. Guk zeregina erregulatu diagu eta horrek laguntzen ziguk irauten.

Plazak direla-eta: lehengo eta oraingoak aldatu egin omen dira. Zertan dira erromeria plazak?

IMUNTZO. Plaza ez duk, jendeak esaten duenez, hainbeste aldatu, gure kasuan behintzat. "Garai batean asko eta gaur egun ezer ez!". Hori ez duk zuzena, orduan ez zuan horrenbeste, ezta horren gutxi ere gaur egun.

BELOKI. Gu hasi ginenean —duela 15 bat urte— dezente jotzen genian, eta 2006an hasierakoak baino erromeria askoz hobeak egin ditiaugu. Plaza eta musika estilo ezberdinak zeudek, talde guztiak ez ditek gauza bera esango, noski. Plazako dantza askatua eta lotua ez dituk galdu nolanahi ere.

Plazak plaza, baina nondik nora zabiltzate?

IMUNTZO ETA BELOKI. Gipuzkoa da geure eremua, Bizkaian eta Nafarroan ere jotzen diagu, Iparraldean ere poliki. Gure dantzaldietako jendea herri musikaren inguruan zebilek. Gipuzkoan trikitiak sona handiagoa dik, beraz, jendea dantza askatua gehiago aritzen duk. Nafarroa Garaian eta Iparraldean rantxerak, mutxikoak eta zortzikoak nagusitzen dituk.

Zer adineko jendea inguratzen duzue?

BELOKI. Bitxia da. Afal ondotik hasita, berandu gabe, haurrak eta helduak. Gazteak azken orduan iristen dituk, ostatutik bueltan. Pentsa, guk hasi diagu erromeria jotzen haxe esanez: "Imuntzo eta Beloki gaixotu dira eta gaur zuekin Pirritx eta Porrotx dituzue...", bikote pailazo honen *Xalala, xalala* doinuarekin, alegia.

IMUNTZO. Guk ez diagu erreperitorioa prestatuta jotzen, aurrean dugun jendearen arabera baizik. Denetariko jendea izaten diagu eta dagoenaren adinaren arabera jotzen diagu. Afaldu ondorengo eta goizaldekoa ezberdina dituk noski.

Ganbaran bai (Urolako Trikitixa) diskoko piezak dantza askatuko ziren gehienbat, **Gauaren helduan** honetan berriz lotuan aritzeko.

Imuntzo

Trikiti irakaslea

Badira 20 urte trikiti eskolak ematen ditudala: Zarautzen, Azpeitian, Durangon eta Zornotzan ari naiz. Trikitilariok Trikitixa Elkartearen bidez harreman moduko bat badugu, bestela irakasleen artean ez dugu aparteko harremanik, gutxi egoten

gara elkarrekin. Ni Zarautzen hasi nintzen, gero tokiak gehitzen joan ziren. Astean hogeita hamar ordu ematen ditut eta laurogei ikasle inguru ari dira trikitia ikasten nirekin. Horiek nik bilatu eta aurkitu ditut, lana egon badagoelako.

BELOKI. Lotuan aritzeko, baina ez zioagu hainbeste begiratzen erromeriari edo plazari, gure gustuko kantuak hautatu ditiagu, zerbait adierazten diguten kantuak. Izan zitezkek erromeriarako, dantzarako balio ditek-eta, baina adierazia ere inportantea duk guretzat.

Nola sortu da diskoa, zer da berau zuen ibilbidean?

BELOKI. Lanaren poderioz sortu diagu, denbora eskainiz, gogoz arituz. Urte eta erdi eman diagu prestaketan, proiektua hasten denetik tirriki-tarraka... Lasai, presiorik gabe. Orain diskoa kalean dela, plazaz plaza ibiliko gaituk, polita duk-eta plazan aritzea. Plazan tamainan ibiliz gero gozatu egiten duk eta gehiegi joz gero nekatu. Ez diagu nekatu nahi, guk jubilatuta nahi diagu trikitilari izaten, lehenengoan modura.

Trikitia eta koplak elkarren ondoan doaz. Izaten dira hala ere, kontrobertsiak. Azalduko al dizkiguzue koplaren alde horiek?

IMUNTZO ETA BELOKI. Kantu tradizionalak bertsoz osa zitezkek, zortzi edo hamarreko handian alegia. Koplak trikitiarekin jotzen dituk normalki, hiru puntukoak izaten dituk-eta, motzak, trikitian eta porrusaldetan abestuak. Xabier Amurizak dioenez "kantatzeko garaian, jende askok lau puntuko bertsoak kantatzen ditu eta lau puntukoak zortziko txikiak dira, eta trikitia kantatzeko hiru puntuko behar dira". Kopla ez duk bertsoa, kopla izateko hiru puntuko behar dik, trikitia kantatzeko kopla behar duk. Horregatik errepikatzen dituk azkeneko eta aurreneko lerroak.

Koplen jatorriaz eta egokitasunaz ere badago zen esana, baita landu eta ezagutu beharra.

BELOKI. Interesgarria duk koplen jatorria arakatzea. Gure erreperitorioko kopla batzuk zaharrak dituk, geuk landuak. Batzuek kopla hauek berriak bezala hartzen dituzte, ezezagunak direlako. Honen inguruan badiagu zer kontatua. Disko honetako *Aita San Antonio* kantu ezagunaren koplak Andolin Eguzkitzak pasa zizkiguan. Festa batean topo egin genian, denok animosoak gintuan, hark guk bezalaxe baso bat ur gehiago edanda, eta Andolin hasi huen

Bideo klipa

"Bideo klipa egin dugu, gure argitaletxeak ETBri proposatuta. Pausuko (Lapurdi) Xaia ostatuan grabatu genuen, Akelarre elkarteko dantzarekin —CDko azalean agertzen direnak—. Bideoa *Lehia ez da nahia* lehen kantarekin egina dago. *Arin arina, mutxikoa eta cumbia* eritmoak nahasten dira pieza horretan. Funtsean *cumbia* da, Venezuelako eritmoa. *Cumbiak* eritmo ezberdinak tartekatze balio du. Bestalde, ondo bidez, ETBrako saio bat egingo dugu *Gauaren helduan izenarekin*".



koplak kantatzen: “To, horiek ez ditiagu guk ezagutzen” guk. “Nik bai” hark, elkarri adarra jotzen hasi gintuan. “Kopla horiek behar ditiagu” esan genioan. Euskaltzaindiko bulegotik bidali zizkiguan: “Aita San Antonio...” ezagunarenekin hasten duk, baina gero ezezagunak dituk: “Ene aita ta ama euskaldunak dira, beren semeak, beren alabak zer izango dira? Ai! Ai!”. Andolin joan zuan eta kopla horien jatorria ezagutu gabe geratu gintuan. Amurizak ere ez dizkik ezagutzen. Honen ustez, estiloarengatik, 36ko gerra baino lehenagokoak dituk.

Koplarekin edo gabe, trikitilariak diru erraza egin zale omen zarete.

IMUNTZO ETA BELOKI. Gu diru zaleak bagina, saiatuko gintuzke gehiago jotzen, baina justua jotzen diagu. Horrela egokia delakoan, bestela trikitiaren funtzionarioa bihurtzen haiz.

Trikitia berritzearen edota duintzearen beharra ere aditzen da. Zer diozue horretaz?

IMUNTZO. Badakik, besteek esaten dutenaz...

BELOKI. ...filosofatzen hasten bagaituk... Trikitiak ez dik duintasun faltarik, trikitia bizirik zegoak Euskal Herriko hainbat jende horixe izan nahi duelako. Zer da duintasuna? Guretzat, hemengo jendeak bizi izan duen moduan jotzea. Gero trikitia esportatzea zegoak, eta hor duk Kepa Junkera. Bera duk gehien kanpora atera dena eta duintasunez eraman dik kanpora. Baina Kepak jotzeko bere modua bertatik jaso dik.

Maidar Ansa

“Maidar Ansa diskorako proiektuan aritu da printzipioz. Ansa ahizpetako bat da, EKOn aritutakoa eta han-hemenka saritutakoa. Jendeak eskatuko baligu Maidarrekin berarekin batera plazan abestea, gustura hartuko genuke eskaera. Bestelakoan, diskoa ohiko musikariek grabatu dugu eta halaxe arituko gara plazan.”

BELOKI. Ondo zegoak hori ere, eta izan ziteke denetarik, kantu alaiak nola maitasunezkoak, eta gurean horrelakoak zeudek...

IMUNTZO. ...baita mezua daramatenak ere. Kantu batzuek mezu erreala dituzte, beste batzuk egiazko historiak dituk, guk asmatutakoak... denetarik zegoak. Garai batean kantatzen zen “oraingo neskatilak titi borobillak...” eta harekin egiten zen festa, eta jendea gustura egoten zuan. Ordukoak txarrak al zituan? Gaurkoak kultuagoak ote dituk? Nor da nor hori epaitzeko eta zergatik? Orduan gustura ibiliko zituan, ezta? Lehenengoko koplak garaian garaikoak zituan, gaur egun kantuetan gai sozial gehiago direla, ados. Garaiak aldatu dira.

BELOKI. Hizkuntzaren tratamendua aldatu duk, hitz egiteko era.

Iparraldeko kutsua ere ba du diskoak: Beloki iparraldekotu –Hendaian bizi haiz-eta– den seinale edo?

BELOKI. Beno... azken urteetan gehiago mugitzen gaituk denok. Mugitzen haizen heinean, belarriak erne izanez gero, beste kontuak eta kantuak jasotzen dituk. Musikaria izanez, aise entzuten duk eta horrek zerbait esaten badik, inkontzienteki arakutzen hasten haiz. Hitzengatik edo melodiengatik hari-muturretik tiratzea duk kontua.

Gauaren helduan ere Elkar diskoetxearekin kaleratu duzue azken diskoa. Batzuk elkarrekin ondo ez, Elkar-ekin nekez, antza. Zuek elkarrekin eta Elkarrekin beti...

IMUNTZO ETA BELOKI. (Kar, kar, kar...) Gu elkarrekin ondo gabiltzak eta Elkarrekin ere ondo. Beste batzuk... ai, ai, ai... ■